



Amedo eta Dominguez akusatuen aulkian

Ez da espero datorren asterako deitutako mertzenariak agertzea

Asteartean Blanca Balsategik eta Inmaculada Gomezek deklaratu dute

Aste honetan deklarazera deituta dauden GALEko mertzenarietatik bakar bat etortzea baino ez da espero; gehienak Frantziako edo Portugalako espetxeetan egonik, dagoeneko iragarri dute ez direla agertuko. Gomez eta Balsategi auziperatuen emazte ohiek, ordea, asteartean deklaratu dute.

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Amedo eta Dominguezen epaiketako lekukotasun frogaren azken hiru egunak (asteazkenean amaituko bait da froga hau) nahiko 'gatzgabatuak' geratuko diren ustea ziurtatu da epaiketa aurrera joan ahala, GALEko mertzenariak ez agertzeko asmoa erakusten zuten neurrian.

Gauzak horrela, astearteko froga izango da seguruenik interesgarriena, egun horretan Inmaculada Gomez eta Blanca Balsategi Amedo eta Dominguezen emaztegai ohiek ez zizkion, Odette Roussey, Roger Rousseyren arreba ere deklaratu bait du.

Lehenengo biek (nahiz eta azken orduan Balsategik zenbait puntutan atzera egin) Garzon instrukzioko epaileari adierazi ziotenez, poliziek GALEko partaideak zirela aitortu

zieten, eta Goenaren hilketan erabili zen lehergailua eroan zuten Inmaculada Gomezek etxera.

Odette Rousseyk, bere aldetik, Mendailleri leporatu zion bere neba GALEko kontratatzea, eta deklaratu duenaren arabera, Mendaillengana bere neba askatzeko laguntza eske joan zenean, honek Amedo eta Dominguez aurkeztu zizkion, eta GALEn sartzeko eskaintza egin zioten, eta Iparraldean aritu beharrean Santo Domingon arituko zela esan.

Mendaillek deklaratu zuenean, oster, ukatu egin zuen Amedo eta Dominguez ezagutzen zituenik, eta Rousseytarrak bere tabernako bezeroak izanik, aspalditik ezagutzen zituela esan arren, Odettek nebarentzako dirua eskatu eta berak ukatu egin ziola gaineratu zuen.

SARE Asteleheneko egitarauaren arabera, ha-

masei pertsonak deklaratu beharko lukete, berauen artean 'sare portugaldarreko' Figueredo Fontes, Carvalho da Silva eta Ferreira Cisneros. Lehenengo joan zen astean kondenatu zuten 'Batxoki' eta 'La Consolation' tabernen aurkako atentatuengatik eta gainontzekoak Portugalen daude preso.

Hauetatik inor ez agertzea ia segurua bada ere, funtsezkoa dira egi-


nak dituzten adierazpenak. Izan ere, Figueredo Fontes atxilotu ondoren identifikatu ahal izan zen Amedo GALEko ustezko partaidetzat.

Figueredoren esanetan, Ricardo eta Eduardo deituriko eta polizia espainolak zirela zioten pertsonak kontratatu zituzten. Kontratu egin zuten jatetxera abiatuta, berriz, Jose Amedo Foucesen VISAz ordaindu zela frogatu zen.



Paulo Figueredo Fontes kondenatu berri dute.

Euskadi Gaztea Lehen urteurrena



PIZTIAK HERTZAINAK TAHURES ZURDOS

Donostiako Anoeta Polikiroldegia
Uztailak 6 • Gaueko 10,30etan

Sarrerak: Xaribari • Beltza Records • Frudisk

Bi euskal preso libre atera dira kondena osorik bete ondoren

DONOSTIA

Felix Lopez Losada eta Patxi Lallana Berlanga libre gelditu dira, Auzitegi Nazionalak ezarritako kondena bete eta gero, Amnistia-aren aldeko Batzordeetatik jakin erazi denez.

Felix Lopez Losada arrasatearra pasa den ostegunean irten zen espetxetik, Auzitegi Nazionalak 1985eko urriaren ezarri zion zazpi urteko gartzelaldia osorik bete ondoren.

Lopez Losada 1985eko martxoaren 12an atxilotu zuten Madrilen, Edurne Iturbekin batera. ETAko informazio-komando bateko partaide izatea leporatu zieten. Hori dela eta, zazpi urte eta hiru hilabeteko zigorra jarri zioten bakoitzari. Edurne Iturbe pasa den maiatzaren 6an libratu zen.

Felix Lopez, preso egon den bitartean, Huesca, Herrera eta Ibizako presondegietatik pasa da.

Patxi Lallana Berlanga lasartearra ostiralean utzi zuten libre, 1987tik gaur arte gartzelan egon ondoren. Ostiralean bertan ongietorria egin zitzaion bere he-

rriari. Lallana Berlanga 1987ko urriaren 1ean atxilotu zuten. Sei urte eta egun bateko gartzela eta 150.000 pezetako isuna ezarri zion Auzitegi Nazionalak 1988ko ekainean.

FONTSO ETA ARSUAGAREN OMENALDIA

Gaur bertan, Laudion, Alfontso Isasi «Fontso» eta Pilar Arsuagaren omenezko ekitaldi bat egingo da Laudion.

Alfontso Isasi eta Pilar Arsuaga auto istripu batean hil ziren duela urtebete, Ourenseko gartzelan preso zengoen Marivi Revilla bisitatzen joan zirenean.

«Pili eta Fontso tragikoki adierazi dute dispertsioa zer den senideentzat: mila kilometro, hamabost minutuz gure senideak kristal blindatu artean ikusteko», eman dute aditzera preso, errefuxiatu eta deportatuen senideek.

Gaur arratsaldeko 6etan Laudikoko plazan izango den omenezko ekitaldiaren antolatzaileen ustez, Pilar eta Fontsoen heriotza trafiko istripu bat baino gehiago da.